

SARRERA

Gu Daniela, Maier, Libe Agirre, Nahia eta Libe gara, Lekeitioko Lanbide Heziketako ikasleak eta BiTime izeko proiektuaren sortzaileak. Proiektua berton jaio zen ideia berritzaile eta jasangarri bat da, teknologia berriak eta Lekeitioko ondare historikoa eta kulturala batzea helburu duena.

Aurten, Azaroaren 3 an Lekeitioko hiribilduak 700 urte bete dituela aprobetxatuz, herriaren iragana eta oraina modu berritzailean ezagutarazteko beharra identifikatu dugu. Horren emaitzak dira gure 3D betaurreko interaktiboak. Honekin erabiltzaileei Lekeitioko historia, bilakaera eta istorioak modu bisual eta didaktikoan bizitzeko aukera ematen diete.

